

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4497

EBAZPENA, 2019ko irailaren 23koa, Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta argitaratzen baita zeini emango zaizkion Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko maiatzaren 22ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzak. Agindu horren bidez, informazio geografikoa hobetzeko eta udal mapak egin eta zabaltzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsat, 2019ko ekitaldirako.

2019ko ekainaren 5eko EHAA (105. zk.), Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko maiatzaren 22ko Agindua argitaratu zen (agindu haren bidez, informazio geografikoa hobetzeko eta udal mapak egin eta zabaltzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsat, 2019ko ekitaldirako).

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 5ean amaitu zen, hala ezarrita baitzegoen aipatutako aginduaren 6.1 artikuluan. Epe horretan, 18 eskabide aurkeztu ziren; honako hauek:

- 1.– Bergarako Udala.
- 2.– Bilboko Udala.
- 3.– Debako Udala.
- 4.– Elgetako Udala.
- 5.– Errigoitiko Udala.
- 6.– Fruizko Udala.
- 7.– Hernaniko Udala.
- 8.– Iurretako Udala.
- 9.– Lapuebla de Labarcako Udala.
- 10.– Leintz-Gatzagako Udala.
- 11.– Leioako Udala.
- 12.– Nabarnizko Udala.
- 13.– Ondarroako Udala.
- 14.– Urduñako Udala.
- 15.– Sopuertako Udala.
- 16.– Harana Udala.
- 17.– Villabonako Udala.
- 18.– Vitoria-Gasteizko Udala.

Dirulaguntza hauek arautzen dituen 2019ko maiatzaren 22ko Aginduaren 9.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, kudeaketa-organo bat eratu zen, 2019ko irailaren 9an, jasotako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko; horren ostean, ebazpen-proposamena igorri zion sailburuordetza honi, eta, han, eranskinean, jasota dago zer dirulaguntza emango diren, udal onuradunak aipatuta, bakoitzaren biztanle-kopurua emanda (Eustat 2018), eta mapa paperean inprimatzea erabaki duten zehaztuta, proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoarekin batera.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko maiatzaren 22ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (agindu horren bidez, informazio geografikoa hobetzeko eta udal mapak egin eta zabaltzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsat), eta aintzat hartuta horretarako eraturako kudeaketa-organoak helarazitako proposamena, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dirulaguntzak ematea ebazpen honen eranskinean zerrendatutako udal onuradunei, informazio geografikoa hobetu, udal mapak egin, eta zabal ditzaten. Zerrendan, halaber, zehaztuta daude udal horien biztanleria-datuak (Eustat 2018), udalek paperezko inprimaketa aukeratu duten ala ez, eta zenbateko dirulaguntza jasoko duten.

Bigarrena.– Diruz lagunduko diren lanak hasteko eta, hala badagokio, kontratatzeko eta gauzatzeko gehieneko epeak 2019ko maiatzaren 22ko Aginduaren 11. artikuluan ezarrita daude.

Hirugarrena.– Agindu horren 12. artikuluari jarraituz egingo da dirulaguntzaren ordainketa.

Laugarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, eskatzaile guztiei jakinarazteko, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko maiatzaren 22ko Aginduaren 10. artikuluan xedatuarekin bat etorriz, eta, era berean, dirulaguntzak emateko prozedura orok bete behar duen publikotasun-printzipioa betetzeko.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 23a.

Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MARIA ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.

2019ko urriaren 3a, osteguna

ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Udalak	Biztanleak (Eustat 2018)	Paperezko mapa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euroak)
Bergara:	14.976	Ez	8.149,76
Bilbao	342.810	Bai	12.000,00
Deba	5.437	Ez	8.054,37
Elgeta	1.140	Bai	9.613,68
Errigoiti	493	Ez	8.004,93
Fruiz	547	Ez	8.005,47
Hernani	19.849	Ez	8.198,49
Iurreta	3.667	Bai	9.644,00
Lapuebla de Labarca	867	Bai	9.610,40
Leintz-Gatzaga	248	Ez	8.002,48
Leioa	30.904	Bai	9.970,85
Nabarniz	244	Bai	9.602,93
Ondarroa	8.601	Bai	9.703,21
Urduña	4.217	Ez	8.042,17
Sopuerta	2.512	Bai	9.630,14
Harana Udala	246	Bai	9.602,95
Villabona	5.925	Ez	8.059,25
Vitoria-Gasteiz	243.815	Bai	12.000,00
Guztira			165.895,08